


**VOUS NE DÉSIREZ QUE MOI / I WANT TO TALK ABOUT DURAS • Frantzia**

Claire Simon (zuzendaria, gidoilaria)  
Swann Arlaud, Emmanuelle Devos (antzezleak)  
Françoise D'Artemare (ekoizlea)

# Claire Simon: “Gustura sentitzen naiz film hibridoak egiten”



Swann Arlaud, Emmanuelle Devos eta Claire Simon aldarte onean.

JORGE FUENBUENA

## The Difficult Art of Listening

The French director, Claire Simon, is at the Festival to present *Vous ne désirez que moi*, a portrait of the relationship between the novelist Marguerite Duras and her much younger partner, Yann Andréa. Her film is based entirely on transcripts from a 1982 interview between Andrea and the journalist Michèle Manceaux which was later turned into a book. Simon loved the book when she read it and confessed that she was an admirer of Duras. However, she wanted to make quite clear that this was a film about Yann Andréa. “We always focus on the text. Quite often in films we make adaptations and record things written in a text, but what we’ve done here is make a film from a written text which we listen to. Emmanuelle Davos, who plays Michèle Manceaux, also drew attention on the fact that she’d really been looking forward to making a film in which she expressed herself not through the spoken word but by only using body language and facial gestures when listening, whereas Swann Arlaud, who plays Andréa, had the opposite problem: he had to work with huge amounts of dialogue.

### SERGIO BASURKO

Marguerite Duras idazle frantziarren eta bera baino 38 urte gazteagoa zen Yann Andréa bere azken bikotekidearen arteko harremanaz dihardu Claire Simonen film berriak. Bi pertsonarekin bakarrik eta aitortza moduan kontatua, elkarrizketa fikzionatua, ilustrazioak eta artxiboko irudiak biltzen ditu Simonen lan hibrido honek.

“2016an Yann Andréak Marguerite Durasekin izandako harremana aitortza moduan idatzi zuen liburua irakurri eta erabat liluratuta geratu nintzen” hasi da zuzendaria. “Orduan, idazleari buruzko antzerki-lan bat an-

tolatu nahi zuen lagun batekin hitz egin nuen. Hortik aurrera, ideiak partekatzen joan ginen, nire kasuan, beti kontzientzia zinematografiko indartsu batetik abiatuta. Bi pertsonen arteko maitasun istorioa hirugarren pertsona batek kontatua filmatzearen ideiak asko erakarri ninduen”.

“Marguerite Durasen literatura eta hark emakumeontzat irudikatzen duena maite dudan arren, ez dut nire burua haren zale amorratutzat. Era berean, argi utzi nahi dut film hau Yann Andréari zor zaiola. Bere testua izan da gida bakarra; filma bertatik abiatuta egin genuen. Maite dut testua artxibo emozional gisa; istorio baten, izaki batzuen edukiontzi gisa”.

### Hitz-aspertu emozionala

Testuaren luzerari dagokionez, Swann Arlaud aktoreak honakoa erantsi du: “Filmaketa hasteko hilabete eskas falta zenean iritsi zitzaidan gidoia. Jakina, hain denbora laburrean ezinezkoa zen dena buruz ikastea, nire papera bakarrik oso luzeetan oinarrituta baitago. Egin genuena zera izan zen, testua setean bertan irakurtzen joango zitzaidan norbaiten laguntzaz baliatzea. Testua hitzez hitz gogoratu beharrik gabe, arreta osoa esaldi bakoitzaren zentzu berezia aurkitzean jarri nuen”.

Emmanuelle Devos protagonistakideak, bere aldetik, bere esperientziak hitz egin digu: “Hau bezalako entzule papera aspalditik bilatzen nuen. Egia

da aktoreek hitz mintzatuaren bidez adierazten garela, baina nire ibilbidearen momentu honetan sentimenduak transmitzeko beste modu batzuk bilatzen ditut, bai aurpegiaren bidez, baita gorputzaren bidez ere. Oso zaila da entzutera mugatzea gaztea zarenean, baina heltzen zarenean, keinu naturalagoa da. Nolanahi ere, oso erraza izan zen Swann Arlaudek kontatzen zuenari arreta jartzea”.

Claire Simonek maitasun istorioaz mintzo da: “Filmean maitasun sentimenduaren kurba islatu nahi nuen: nola sortzen den, nola eboluzionatzen duen, nola suntsitzen den bere berezitasunak gorabehera; uste dut Yann eta Margueriten arteko harre-

manak maitasunari buruzko ikuspegi oso unibertsala duela”.

Bere filmografian ohikoa duen dokumentalaren eta fikzioaren arteko nahasketa bereziaz galdetuta, zuzendariak hauxe dio: “Gustura sentitzen naiz film hibridoekin. Zinema, nire ustez, zinema besterik ez da; ez dut dokumentalaren eta fikzioaren arteko bereizketarik egiten. Artxiboko materialarekin egiten dudana erabilera, esaterako, elementu orotarazlea da. Ez dut mugatu nahi garai edo lan jakin bat irudiztatzea, baizik eta irudi hauek gure buruan ditugun irudietara eraman gaitzaten”.

**KELONIK**  
antaviana  
VFX & POSTPRODUCTION  
**SHARP / NEC**

JUNTOS PARA LA MEJOR PROYECCIÓN DIGITAL